

LIZARTZA ▶

Ihauteriak bihar hasiko dira

Gibela dastaketa eta dantzariak izango dira ▶ 5



Euriak busti ditu San Sebastian eguneko ospakizunak

JAIK ▶ Elizkizunak, txistulariak, dantzariak eta otorduak izan zituen Leaburun eta Orendainen

EURIA ▶ Berastegin meza igandera atzeratu dute, eguraldi txarra zegoelako ermitara joateko ▶ 6



Dantzarien saioa Leaburuko San Sebastian ermitaren aurrean, atzo arratsaldean. IÑIGO TERRADILLOS



IMANOL GARCIA

Aritza euskal kultur eta historia taldea sortu dute

VILLABONA ▶ Nabarraldeko antolatutako hitzaldien ondoren eratu dute; hilero aldizkari bat argitaratzen hasi dira ▶ 4

TOLOSA ▶

Ero-Etxeren krosa etzi izango da erdialdeko kaleetan zehar

Trafiko aldaketak izango dira ▶ 2

LEITZA ▶

Aurrera futbol taldeak bihar jokatuko du, Ihoteak direla eta ▶ 7

HITZA-KO JERTSE BERRIA ESKURA

Gertuen duzun egoitzan lor dezakezu Zatoz zurearen bila!

TOLOSA • LEITZA

KIROLA ▶

Etzi goizean zehar, Ero-Etxe elkarteak antolatutako Krosa

Hiru mailtako lasterketak 11:30ean hasiko dira; trafiko aldaketak izango dira

JOXEMI SAIZAR

Etzi, igandea, korrikalari txikiak beteko da goizean San Frantzisko ibiltokia eta Tolosa erdialdea. Ero-Etxe elkarteak antolatutako krosa izango da bere 18. edizioan. Beti bezala hiru mailtan banatu dituzte neska-mutilak, jaiotza dataren arabera: infantilak, kimuak eta haurrak.

Lehen lasterketa 11:30ean hasiko da eta jarraian etorriko dira gainontzeko bostak. Irteera eta helmuga San Frantzisko ibiltokian izango da, Beotibar pilotalekuaren parean. Ibilbideak erdialdeko eta Alde Zaharreko kaleak hartzen ditu, mailen arabera. Txikienek Foruen etorbidea, Nafarroa etorbidea eta Zumalakarregi kalean korrituko dute. Handiagoek berri, Trianguloa zeharkatu eta Korreo kaletik plaza Berriaino iritsi eta Arostegieta eta Atadi kaleetatik itzuliko dira San Frantziskora.

Lasterketak bukatu ondoren, ordubata aldera, sari banaketa izango da Tolosako Udalaren eta Ero-Etxe elkartearen ordezkarien eskutik. Partaide guztiek domina, pin-a eta etxe batzuk emandako opariak jasoko dituzte. Maila bakoitzeko irabazleek —aipatutakoez gain—, txapela.

Krosa dela eta, Udaltzaingoa trafikoa neurri batzuk hartu ditu iganderako 11:00etatik 13:00etara. Ibilbidea itxita egongo da eta trafikoa La Roncalesa autobusa Santa Lucia garajearen parean geldituko da eta Donostiako autobusa zezen-plazan, Nafarroa etorbidean eta Igarondo bialean. Taxi geralekua Soldadu kalean izango da, eta ez Zumalakarregi kalean.



lazio edizioko irabazleak bere sariekin, antolatzaileak eta udal ordezkariak ondoan dituztela. IRATXE ETXEBESTE

MANUEL CARRERA ▶ ANTOLAKETA TALDEKOA

«Aurten zenbakiak jarriko ditugu, sailkapena errazteko»

Ero-Etxe elkartearen krosaren antolaketaz arduratzen den batzordeko Manuel Carrerarekin mintzatu da HITZA.

Nola sortu zen krosa egiteko asmoa?

Elkartean ez genuen aktibitate handirik eta kirola eta haurrak uztartzea egokia zela pentsatu genuen. Hemezortzigarren edizioa izango da aurtengoa.

Zein izaten da egin beharrekona lana?

Azaroan hasten gara kartelarekin. Publizitatea jartzen duten laguntzaileak bilatu behar dira, kartelak eta esku programak banatu eta ikastetxeetako ordezkariekin bilera egin. Gero partaide guztientzako dominak, pin-ak eta irabazleentzako txapelak lortu behar



J. SAIZAR

dira. Megafonia, hesiak eta Udaltzaingoa lortu. Udalaren laguntza handia dugu.

Zenbat partaide izaten da? 700 inguru hiru mailtan. Eskualde osoan etortzen dira.

Eta lanean?

Egun horretan ia elkarte osoa aritzen da, 40 lagun inguru.

Berrikuntzarik ba al da aurten?

Zenbakiak jarriko dizkiegu korrikalarietara betiko txartelen bidez. Helmugan sailkapenak errazago egiteko. Bestalde, ikastetxeetako sailkapena kentzea proposatu digute. Agian kenduko dugu.

Zein dira elkartearen hurrengo erronkak?

Inauterietako txaranga eta zenezuzkoa eta Santa Agedako korroa. ◀

hitza **txokoa** lagunena

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ Astebukaera honetan **Leidorren** emango den 'ALEJANDRO MAGNO' filmerako 2 sarreraren irabazlea:

JUANMA ORDOZGOITI ZABALA
HITZAren harpidedun laguntzaile irurarra.

▶ **NEREA LENTZERIAK** oparitutako oherako arroparen irabazle den harpidedun laguntzailea:

KONTXI LULUAGA (ANOETA)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶



Merkatu Txikian makina bat jende aritu da aurten lanean. L. MONTES

«Elkartasuna handituz doa urtetik urtera»

Laskorain ikastolako arduradunak oso pozik dira Merkatu Txikiko emaitzekin

IRATXE ETXEBESTE

«Laskorain ikastolako antolatuta, eta Ibarako San Bartolome misio taldearen, Tolosaldea Sahararekin elkartearan eta Tolosako Udaleko Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin burutu dugun Gabonetako Merkatu Txikiaren balorazioa egiterakoan, aurten ere erantzun bikaina jaso duela nabarmendu beharrean gaude». Modu horretara egin dute Laskorain ikastolako arduradunek aurtengo balantzea. Eguberrietan Tolosako Kultur Etxearen azpialdean jarri duten Merkatu Txikian salgai egon diren jantziak, jostailuak, tresnak... Ikastolako guraso, dendari eta gainerako herritarren «esku-zabaltasunari esker» izan dira antolatzaileen hitzetan, eta urte urte ekimen horrek jasotzen duen erantzuna «azpimarragarri» iruditzen zaie: «Beraz, gure esker ona, modu batean zein bestean ekimen honetan parte hartu duzuen guztiei».

«Benetan pozgarria deritzogu Emaus Fundazioak bazterketaren aurka burutzen duen proiektua, eta Tolosaldea Sahararekin elkarrekin eta San Bartolome misio taldearen asmoak ezagutzeko eta zabaltzeko antolatutako ekintzetan jaso dugun atxikimendua eta erantzun ona». Horri esker, ehunka gaztek, gurasok, familiarik eta herritarrek ezagutu ahal izan dute azken urteotan hain-

bat jende bizi duen gizarte bazterketa, «bai urrutian bai ez oso urrutian; gugandik gertu, baizik». Horixe adierazi dute ikastolako ordezkariak. «Aldi berean, egoera horiek leuntzeko eskura dugun aukera eta herritarren artean zabaldu nahi dugun konpromisoa ezagutzera eman dugu. Ziur gaude ekimen xume hauen bidez gizarte solidarioagoaren alde ari garela, eta jarraipena merezi duela. Kanpaina amaitu da, baina egitekoak hor dirau, egunerokotasunean».

«Parte-hartze oso zabala»

Aurtengo ekitaldiko parte-hartzea «oso zabala» izan dela argitu dute Merkatu Txikiko arduradunak. Guztira, 147 dendarik hartu dute parte; ardura-dun gisa, hamabi egunetan zehar, 68 guraso, langile eta ikasle ohi aritu dira, eta laguntzen, berriz, 175 ikasle (144 neska eta 31 mutil). «Helburu nagusia ekonomikoa ez bazen ere, honek ere oso erantzun ona izan du eta 11.000 eurotik gora lortu ditugu. Diru hau dena eta saldu gabe geratu zen guztia Emaus Fundazioaren, San Bartolome misio taldearen eta Tolosaldea Sahararekin elkartearan esku geratu da, talde eta elkarte hauek baztertekin orain arteko lana eginez jarrai dezaten. Honegatik guztiagatik, zuzenean edo zeharka parte hartu duzuen guztioi eskerrak, berriz ere».

GAZTERIA ▶

Xake eta eskoba txapelketak Gazte Topagunean

Tolosako Udaleko Gazteria saileko Gazte Topaguneak xake txapelketa antolatu du iganderako. Bertan parte hartu nahi dutenek, Gazte Topagunera gerturatu besterik ez dute egin behar, eta bertan izena eman. Datorren igandean, berriz, hilak 30, Eskoba txapelketa izango da, eta gauza bera egin behar da bertan parte hartzeko. 17:00etan hasiko dira txapelketak; sariak daude.

INAUTERIAK ▶

Danborradarako eta lehiaketarako

Zaldunita bezperako danborradaren entsegu egunak zehaztu dituzte antolatzaileek. Hilaren 24ean, astelehenarekin, hasi eta 27a bitarte izango dira, egunero, Kultur Etxeko areto nagusian, 20:00etan hasita. Azken entseguak, berriz, otsailaren 1ean egingo dute, Pablo Gorosabelen. Danborradan parte hartzekotan diren guztiak entseguetara joatea komeni dela esan dute antolatzaileek. Bestalde, gaur bukatzen da Inauterietako karrozten eta konpartsen lehiaketan parte hartzeko izena emateko epea. Aranburu Jauregira joan behar dute lehiaketan parte hartu nahi, eta oraindik ere izena eman ez dutenek; 13:00ak baino lehen, betiere. Ez da beharrezkoa taldearen argazkia eramatea, baina ohiko datuak —arduradunek izen-deiturak, helbidea, telefonoa, modalitatea...— eta kontu korronteko 20 digitoak eman behar dira lehiaketan parte hartu ahal izateko.

GIZARTEA ▶

Hautesle-errola zerrendak jarrita egongo dira

Tolosako Udalak jakitera eman duenez, indarrean dagoen hautesle-errolako zerrendak jendaurrean jarrita egongo dira udaletxeko behoko solairuan, hilaren 21etik 28ra. Erreklamazioak egin nahi izanez gero NANaren, pasaportearan edo gida-baimenaren fotokopia aurkeztu behar da udaletxeko Estatistika departamentuan (3. solairuan).

ESKIA ▶

Elurretarako autobusak, antolatuta

Alpino Uzturre elkarteak autobusak antolatu ditu elurretara joateko. Bihar izango da lehen irteera: Candanchu-Astun-Somportera joango dira irteeran izena ematen dutenak, eta horretarako 45 euro ordaindu beharko dute bazkideek, eta 50 euro gainerako guztiak. Prezio horretan sartuta dago lo egiteko aterpea, afaria eta gosaria. Norberak gustukoaren duen eski mota praktikatzeko aukera izango du irteera horretan: alpinoa, snowboard, fondoa... Hurrengo irteera, berriz, otsailaren 5-6rako antolatu dute Beret-era. Bazkideek 50 euro ordaindu beharko dute, eta 5 euro gehiago besteek. Alpino Uzturrekoek proposamen bat egingo dute: larunbatean norberak bere gustura eskiatzea eta igandean Marxa Beret fondoko proban parte hartzea. Autobusa eta pentsio erdia aterpean sartzen dira prezio horretan. Martxarako izen-ematea ordaindu egin behar da.

EUSKAL PRESOK ▶

Itxialdiko hirugarren txanda, hastear

Euskal preso politikoak Espainiako eta Frantziako karzeletan egiten ari diren itxialdia hirugarren txandan sartuko da astelehenetik aurrera. Andoni Otegi, Jon Tapiak eta Ana Belen Eguesek utzi egingo diote borrokaldira txandakatuari egun horretan, eta eskualdeko beste bi preso hasiko dute protesta: Aitor Agirrebarrena lizartzarrak eta Oskar Zelarain billabonatarrak.

HAUR ANTZERKIA ▶



Ikuskizunaren une bat. HITZA

‘Xurdir kobazuloan galdurik’ haur antzerkia, bihar

Leidor aretoan izango da Xurdir taldearen ikuskizun berria, 16:30etik aurrera

I. ETXEBESTE

Xurdir kobazuloan galdurik ikuskizuna eskainiko du bihar Xurdir taldeak Leidor zinema antzokian eskualdeko haurrentzat. 17:30ean hasiko da emanaldia, eta sarrerak salgai dira honezkeroko Kultur Etxean; hala ere, bihar bertan leihatlan ere eskura daitezke ikuskizunaren orduan.

Inoiz ezagutu den basorik alaienean bizi dira Xurdir eta bere lagunak, non ez dagoen lekurik tristurarentzat, eta aspertzeko tokirik ere ez da. Xurdir eta bere lagunak ikaragarriko abenturatan murgilduko dira. Baina izaki maltzurren bateg beraien asmoa zazpuztuko du. Haurren eta basoko ipotxen laguntza beharko dute Xurdirnek eta bere lagunak arazoari irtenbidea bilatzeko.

Xurdirnek batera irtingo dute Leidor zinema antzokiko eszenatokira bere lagun Zirrrik, Borrok, Hizederrek eta Dofasolek. Abentura politik bezain nahasiak eskainiko dizkiete ikuskizunera hurbiltzen diren haurrei eta gurasoei, eta ikasiz, ondo pasatuko dute denek. Izan ere, kantuz eta jolasez betetako mundua ezagutu nahi dutenentzat aproposa da Xurdirnek ipotxen mundu magikoa ezagutzera. Antzerki musikatuak izaki, kontzertua ere eskaintzen dute ipotxek.

Sointek enpresak egindako ekoizpenean hartzen dute parte Lur Kortak, Aritz Ortiz de Urbina, Xabier Tolosak, Imanol Arabaolazak eta Sonia Ezkerrek. Joxemari Gorostegi da antzerkiaren eta musikaren egilea eta Beñat Led argiztapenaz arduratzen da. Izaskun Mujika da ekoizpeneko zuzendaria.

VILLABONA ▶ KULTURA

Aritza taldea sortu dute euskal historia eta kultura zabaltzeko

Nabarralderen eskutik antolatutako hitzaldien ondoren bost lagunek eratu dute; aldizkaria argitaratzen hasi dira hilero



Enrike Lahidalga eta Nekane Berriotoxa, Aritzaren aldizkaria eta Nabarraldeko *Haria* eskuetan dituztela. i.a.

IMANOL GARCIA

Nabarralde ekimenaren eskutik antolatutako hitzaldi batzuen ondorioz sortu da Amasa-Villabonan Aritza taldea. Oraingoz bost pertsona biltzen dira eta taldea irekia dago nahi duenak bertan parte hartzeko.

Astean behin bildu ohi dira udal euskaltegiko gela batean.

Pasa den urteko martxoan egin ziren hitzaldiak bost astetan zehar. Hainbat historialari eta ikertzaile aritu ziren Euskal Herriaren historiari buruz hitz egiten. «Jende dezente izan zen hitzaldietan», azaltzen du Enri-

ke Lahidalgak. «Eta horien ondoren lagun talde bat zerbait gehiago sakontzeko gogoarekin geratu ginen». Hasiera batean bildu ziren ondo jakin gabe zer egin. Gero finkatu ziren bi helburu nagusiak: «Alde batetik gure historia, kultura eta ohituren inguruko jakintza aberastu eta bestalde guzti hori zabaltzea», azaltzen du Nekane Berriotoxak.

Informazioa zabaltzeari dagokionez, Aritza izeneko aldizkaria kaleratzen hasi dira hila-betero. Lehenengo zenbakia abenduan ateratu zuten eta dato-

ren astean espero dute kale-eratzeari bigarren zenbakia. Bai taldearen eta bai aldizkariaren izena Eneko Aritzaren (Iñigo Arista) omenez hautatu dute: «Iruñeko lehen erregea eta Nafarroako lehen errege dinastiaren sortzailea», azaltzen dute.

Memoria historikoa

Taldearen aurkezpenaz azaltzen dutenez, «Vasconia, Pais Vasque, Nafarroa, Euskadi, Euskal Herria deiturikoari buruz heldu zaigun historiaren azalpenak gehienbat iritziz ofizialaren aldetik heldu zaizkigu (garaileen aldetik esango genuke). Herri baten oroimen historikoa ezabatu nahirik, zeinen oroimen honen berreskuratzean datza norbanakako naiz kolektibitate baten askatasunaren lorpena».

Aldizkaria «memoria historikoa berreskuratzeko» asmoarekin eginda dago. Talde, elkarrekin eta ikastetxeetan zabaltzen dute, eta baita Nabarralderen hitzaldietara joan eta kontaktua duten norbanakoei. Euskaldunen historia orokorrak gain, ohiturak eta gertuko historia ere islatu nahi dituzte. Esaterako, lehenengo zenbakian Amasa eta Villabonak Erdi Aroan izandako antolaketari buruzko artikulua jarri dute edo Olentzaroren esanahiari buruz.

Irakurketak eta hitzaldiak

Aldizkaria argitaratzeaz gain beste ekimen batzuk martxan jartzeko asmoa dute ere Aritza-koei. Hitzaldi, ikastaro, irteera eta abar antolatu nahi dituzte. Otsailean, esaterako, Iñaki Peurarena ekarri nahi dute, hitzaldi berezia egiteko: jendearren galderei erantzun eta harria altxatzea tartekatuz osatutako emanaldia. «Nabarralderen bitartez hainbat artikulu publikatu ditu. Oso pertsona jantzia da», azaltzen dute Lahidalgak eta Berriotoxak.

Beren jakintza aberasteari dagokionez, Tomas Urzainkiren *La Navarra maritima* liburua jorratzen ari dira bileretan. Pasarte ezberdinak irakurtzen dituzte eta horien inguruan hitz egiten dute, sortzen zaizkien dudak eta ideiak denon eztabaidatuz. «Baliteke liburuarekin amaitzean egileari deitzea hitzaldi bat egiteko. Hitzaldi irekia izango zen, noski, baino baita berezia ere, taldean sortu zaizkigun kezka galdetzeko aukera izango baigenu», azaltzen du Enrike Lahidalgak. Bien bitartean, Aritza taldeko ordezkariekin harremanetan jartzeko interesa duenak 943 69 14 11 telefonora deitu dezake.

ZIZURKIL ▶

Ikastaro berriak antolatu ditu Udalak

Zizurkilgo Udalak ikastaro berriak antolatu ditu otsailetik aurrera. Salsa, merenge eta bachata ikastaroa urtarrilaren 27tik apirilaren 28ra izango da, ostegunetan 20:30etik 22:00etara, Atxulondon. Irakaslea Julia Maestre izango da eta 30 euroko kostua izango du. *Funky* eta *hip-hop* ikastaroa urtarrilatik ekainera izango da, astelehen eta asteazkenetan 17:30etatik 18:30etara, Atxulondon. Irakaslea Izaskun Forcada izango da eta 50 euroko kostua izango du. Afrikar perkusio hastapen ikastaroa urtarrilaren 31tik ekainaren 6ra izango da, astelehenetan 20:00etatik 22:30era, Atxulondon. 70 euroko kostua izango du. Break dance ikastaroa otsailaren 2tik apirilaren 27ra izango da, asteazkenetan 19:00etatik 21:00etara, Atxulondon. 50 euroko kostua izango du. Izen emateak Aurrera Plaza-ko udal bulegoetan edo 943 69 30 66 zenbakian.

VILLABONA ▶

Behar-Zanakoen partidak Amasan asteburu honetan

Behar-Zana elkarteak Amasako udal pilotalekuan partidak jokatu dituzte asteburu honetan. Gaur gauean izango dute lehen partida. 22:00etan, joko garbiko Gipuzkoako Txapelketan, nagusien mailan Behar-Zana 02 eta Zubieta 03 ariko dira. Bihar, Udaberri Txapelketan, 16:00etan, nagusien mailan eta paleta larruz, Behar-Zana eta Oiangü 03. 16:45ean, esku binaka, Behar-Zana eta Lazkao 01.

IRURA ▶

Autobusa talde laranjaren aurkezpenerako

Peña Enara Euskaltel-Euskadik autobusa antolatu du hilaren 27an Euskaltel-Euskadik txirindulari taldeak Hondarribiako Hondartza kiroldegian egingo duen aurkezpenerako. Interesatuak Enara tabarnan eman behar dute izena. Aurkezpena 19:30ean izango da eta autobusa 17:45ean aterako da Iruratik.

"TROIKA-TOLOSAKO INAUETERIAK" (3)

ET INCARNATUS GANBARA ORKESTRA

FESTA LUSHKOAREN EROMEN LIRIKOA

et incarnatus

CD TROIKA JAZZINGO TALDEA

ISASTEGI sagardotegia

Larunbat eguerdian IREKITA

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA
Tel.: 943 65 29 64

LIZARTZA ▶ INAUTERIAK

Ihauteriei bihar emango zaiei hasiera

Bihar eta datorren asteburuan festa giroa izango da nagusi; igande honetan zubi berriaren inaugurazioa egingo dute

INIGO TERRADILLOS

Bihar hasiko dira Inauteriak Lizartzarrentzat, eskualdeko beste herrietan baino lehena-gio beraz.

12:00etan emango zaie jaietako hasiera eta tradizioari jarraituz udal ordezkariak eta txekorra herriko plazan izango dira. Festari hasiera eman eta gero Otsolar-en eskutik dantza saio berezik ikusteko aukera izango da. Talde hau duela zenbait aste hasi zen entseguekin Inauterietarako behar bezala prestatzeko.

Jaiak bihar hasten badira ere ekitaldi gehienak datorren asteburuan izango dira. Orduan nagusituko dira Lizartzako kaleetan kalejirak, mozorroak, gurdia eta txarangak.

Larunbatean txantxoak, txistulariak eta dantzariak ibiliko dira kalejiran goizez eta arratsaldean. Arratsaldean Lizartzako talogileek egindako taloak dastatu eta sagardoa probatzeko aukera izango da. Igandean, berriz, mozorro ugari ikusiko dira. *Ijitoa erre*, ohiturari jarraituz amaituko dira aurtengo inauteriak Lizartzan.

Zubi berriaren inaugurazioa

12:30ean egingo da igandean zubi berriaren inaugurazioa eta hitzaldia eskainiko du Axurdario herri plataformako ordezkari batek. Txalapartari, dantzari eta bertsolariak ere izango dira. 14:30ean bazkaria egingo dute herritarrek Txirri-ta elkartean.



Bihar hasiko dira Inauteriak. HITZA

ALTZO ▶ EKONOMIA



Langileak enpresa aurrean bildu ziren protesta egiteko. N. LATABURU

Tecasa enpresako bi langile kaleratu dituzte

Komiteak grebara deitu ditu langileak datorren asteko lehen hiru egunetarako

NOELIA LATABURU

Atzo eguerdiko 12:00etan Tecasa enpresako langileak hamabost minutuko lan-etenaldia egin zuten enpresa aurrean, *Tecasan despidorik ez* lelopean, enpresako bi langileen kaleratzea salatzeke. Bi langileak ere bertan izan ziren. Batek hamaika urte zermatzan enpresan lanean, besteak, berriz, zortzi.

Halaber, datorren astelehenan, asteartean eta asteazkenean greba egingo dute, enpresaren «jarrera inposatzaila» salatzeke eta «arazo estrukturalarekin» amaitzeko. Aitzol Ariztorena LAB sindikatuko liberatuak azaldu zenez, bi langileak bidegabeke baten ondorioz kaleratu zituen enpresak eta aspaldi zuten asmo hori. «Muntaia la-

netan kanpora joateko ezetza eman zuten eta, besterik gabe, kaleratu zituzten». Enpresak, greba mamuaren beldur, hiru puntu zituen eskutitz bat luzatu zion Komiteari —ELAko hiru, LABeko bat eta CCOOeko beste batek eratu—. Muntaia lanak egiteko irteerak «oso puntualak» izango zirela, langileek indemnitazioa jasoko zutela eta greba bertan behera uzteko deia jasotzen zituen eskutitzak. Komiteak, aldiz, ez zituen baldintza hauek onartu eta asanbladak greba onartu zuen.

Azken bi kaleratze hauei beste langileekin izandako arazoak ere batu direla azaldu du Tecasako komiteak. «Enpresak jarrera honekin langileak gustura izan ordez, bere haserre pizten dute», adierazi zuten Ariztorenak.

EGITARAUA ▶

BIHAR

12:00. Udal ordezkariak eta txekorra plazan direla, ihauterian hasiera gibela dastatuz. Ondoren, Otsolar-en eskutik dantza bereziak.

URTARRILAK 29

7:00. Kalejira dantzari, txantxo eta txistulariekin.
7:30. Puske-biltzea: dantzariak eta txantxoak ospeletik.
9:30. Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.

12:00. Mozorro, gurdi eta txarangaren irteera errota ataritik.
13:30. Partaide guztiak kalejira, Arrateko zubitik.
18:00. Gurdi eta mozorroak aparkalekutik kalejiran plazara jaitziko dira; bertan sagardoa eta taloak jateko aukera.
21:00. Koadrilen afaria Aztinondo sagardotegian.

URTARRILAK 30

11:00. Txistulariek eskainitako *Agintari doinuez* lagundurik,

agintari eta dantzariak meza nagusia. Ondoren hamaiketako plazan.
12:00. Dantzariak kalean puskatzen ibiliko dira eta gurdia, mozorro eta gainerakoak kalez-kale txarangak lagundurik.
13:00. Lizartzako Ihauteri-Dantzak plazan.
14:00. Ihauteri bazkaria herriko pilotalekuan. Ondoren txaranga, dultzainero, jokuak, dantza-soka, zozketa, saria...
20:30. Plazan *ijitoa erre*z ihauterian amaiera.




Euskal produktuak gure sukaldean

Urtarrilaren 23tik aurrera egunero fitxa bat **DOAN BERRIAREKIN**



Jantzi mantala eta hasi sukaldean!

Laguntzaileak:



Euskaldunok behar dugun

berria

50 produktu 50 jabetxe

- Fagollaga jabetxea, Zuberoa jabetxea, Mugaritz jabetxea, Akelarre jabetxea, Tubal jabetxea, Etxebarri erretegia, Hartza jabetxea, Argomaniz Paradoroa, Borda Berri jabetxea, Currito jabetxea, Les Pyrénées jabetxea, Portalón jabetxea, Fronton jabetxea, Astelena jabetxea, Casa Nicolasa jabetxea, Ajoña Berri jabetxea, Martinez jabetxea, Etxanobe jabetxea, Casa Manolo jabetxea, Elkano jabetxea, Kabia jabetxea, Izkiña jabetxea, Jokin jabetxea, Urepel jabetxea...

SAN SEBASTIAN EGUNA ▶

Euriak bustitako ospakizuna

Elizkizunek, txistulariek, dantzariak eta hamaiketakoek osatu zuten eguna



Oreindaindar batzuk kalejiran hurbildu ziren ermitaraino. N. LATABURU



San Sebastian ermita jendez lepo zegoen meza garaian. N. LATABURU



Leaburuko San Sebastian ermita kanpoan, meza ostean, dantzarien saioa izan zen. IÑIGO TERRADILLOS

NOELIA LATABURU IÑIGO TERRADILLOS

Gipuzkoako hiriburuaren usadioekin bat eginez, eskualdeko zenbait herritan ere San Sebastian eguna ospatu zuten atzo. Urtero legez, Leaburun eta Orendainen San Sebastian ermitetan meza izan zuten. Eguneko ospakizun nagusia elizkizuna bada ere, txistulariak, dantzariak eta otorduak ere izan ziren, besteak beste, eskualdeko bi herri hauetan.

San Sebastian egunak euria eta lainoak izan zituen lagun Orendainen. Musikak, mezak eta janak girotu zituzten herriko txokoak. Goiz guztian zehar euriak eten ez bazuen ere herriar batzuk herriko plazaraino gerturatu ziren, eta San Sebastian ermitaruntz abiatu ziren txistulariekin kalejiran. Baselizako atzerpean, berriz, zain ziren apaiza eta, eurik kirkilduta, zuzenean mezetara joan zirenak. Kalejirak lagun gutxi bildu bazituen ere, San

Sebastian ermita jendez gainezka egon zen meza garaian.

Danbor hotsak ezean, txistularien txistu doinuek alaitu zuten bueltako ibilbidea, urtean behin irekitzen den San Sebastian ermitatik udaletxeraino, hain zuzen ere. Bertako udalbatzar aretoan hamaiketako prestatu zuten eta eguerdiko 14:00etatik aurrera Eltxo elkartean bildu ziren goiz-goizetik herriko zenbait lagunak prestatu zuten herri bazkiaz gozatzeko.

Berastegin ere urtean behin egiten da meza herriaren kanpoaldean geratzen den San Sebastian ermitan, baina aurten ez da posible izan eguraldi txarra zela-eta ez baitzen mezarik izan. Igande honetan egingo dutela azaldu dute herritarrek, baina kasu honetan herriko elizan izango da.

Bestalde, Leaburun ere ospatzen dute San Sebastian eguna urtero urtarrilaren 20an. Horrela, atzo eguraldia lagun izan ez bazen ere, hainbat ekitaldi antolatu zituen Udalak. Hasteko, herritarrek arratsaldean herriko San Sebastian ermitan izan zen mezetan bildu ziren. Meza amaiaztzean herriko dantzariak saio berezia eskaini zuten. San Sebastian eguneko ekitaldiekin amaitzeko, Zazpi Bide elkartera joan ziren leaburuarrek, bertan askari oparoa baitzuten zain.

Ekitaldiz beteriko egun honen ostean, hiru herri hauetako San Sebastianen omenezko ermitek beste urte oso batez itxaron beharko dute urtarrilaren 20a berriz ere iritsi eta bere atek herritarrei zabaldu ahal izateko.

ZUZENKETA ▶

Berrobiko eskola berriaren obrak 1,5 miloi euroko aurrekontua izango du. Datua gaizki aterata zen herenegun HITZAN.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Baliarrain.** Medikua: 88 90 03**Berastegi-Elduain.** Medikua:

68 33 61

Bidegoian. Medikua: 68 11 34**Ibarralde.** Osasun etx.: 672411**Ikaztegieta.** Medikua: 65 33 29**Irura.** Osasun zentroa: 69 07 20**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Orendain.** Medikua: 65 55 95**Orexa.** Medikua: 68 22 28

Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroizko dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrumendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04

▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32

▶ Tipi ttpa ald.: 948 631888

▶ Txolarre Irratia: 69 80 38

▶ Karrape Irratia: 948 610914

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06

▶ Arramele-AEK: 67 12 14

▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Tolosa M. I. Kale Nagusia

7 (Tolosa). 943 67 06 48

Plaza. Elbarren 36 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_public@tolosaldeko

hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko

hitza.info

Anoeta. 687 41 00 22

anoeta@tolosaldeko-hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

LEITZA ▶ KIROLA

Partidua aurreratu eta bihar jokatzekoa da Aurrera taldea

Nafarroako Unibertsitate Pribatuko taldea izanen du arerio, Arkixkilen 16:00etatik aurrera jokatu duten partiduan



Aurrera taldea Arkixkil futbol zelaietan, prestaketa lanetan, aurreko egun hauetan. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Igandetik aurrera herriko iho-teak direla eta, futbolariengan ere eragina badu eta horrela, Aurrera futbol taldeak etxeko partiduak normalean igandez jokatzeko baditu ere, asteburu honetan, egun bat aurreratu dute eta larunbatarekin, bihar beraz, jokatu dute Arkixki-

len, hori bai, ohiko orduan egiten dute, 16:00etatik aurrera, alegia.

Gauzak horrela, txanda honetan Nafarroako Unibertsitate Pribatuko futbol taldearen aurka ariko dira Salazarren mutilak. Saikapen taulan, aurreko lekuetako borrokatik kanpo dagoen taldea izan arren, iruindarra oso talde

indartsua eta bizkorra dela diote, eta lanak ematen dituen.

Joaneraoan, beren esku gelditu zen partidua 2-0ko emaitzarekin. Orain ordainak emateko aukera dute leitzarreko. Partiduko 3 puntuak etxerako izatea garrantzitsua litzake, saikapen orokorreko lehen lekutan jarraitzeko.

LEITZA ▶ GIZARTEA



Orain aurrekoan bukatu dituzten ikastaroen modukoak, berriz. J. A.

Etxeko lantxoak egiten ikasteko ikastaroak

Sail bat egin dituzte eta orain, berriz beste txanda batentzat antolatu nahi dituzte

J. ASTIBIA

Orain aurrekoan bukatu dituzte etxeko lantxoak egiten ikasteko ikastaroak eta izan duten arrakasta eta piztu duten interesa ikusita, berriz ere beste txanda bat antolatzeko nahiz ari dira guraso talde bat.

Bakoitzaren etxean gerta litezkeen matxura tikiak, autoen funtzionamenduari buruzko oinarriko nozioak, altzarien inguruko aholkuak... horrelakoetan zer egin eta zer ez egin jakitea oso komenigarri dela irudituta, arlokako ikastaroak antolatu zituzten: iturgintza, elektrizitatea, altzarien berreskurapena, autoen

mekanikari buruzkoak besteak beste, guztiak ere bertako erakustunekin egin dituzte gainera, hots, herriko iturgin, elektrikari, mekanikari edo berreskuratzailerak izan dituzte maisu-maistra. Oso balizkotzat jo dute bertan ikasitako eta berriz, beste txanda batekin aukera eskaintzea egoki iruditu zaien.

Horrela bada, jakitera eman dutenez, bertan parte hartu nahi izanez gero, nahikoa omen da, Leitzako Karrape Irratira telefonoz deitzea eta bertan bakoitzaren datuen berri ematea. Honako hauxe da bertako telefono zenbakia: 948 610 914.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Astibiaren askatasuna eskatzeko sinadurak

Sinadurak emateko hainbat puntu jarri dituzte herrian zehar «injustizia» salatuz

J. ASTIBIA

Igor Astibia leitzar presoaren askatasuna eskatuz sinadurak biltzeko ekimena martxan da.

Horrela, Astibiari babesa agertuz, sinadura emateko herriko hainbat tokitan dituzte jarritako agiriak, jakitera eman dutenez: Torrea, Gaztañaga eta Peritza tabernetan, Maimur eta Astiz liburudendetan eta baita udaletxeko idazkaritzan ere.

Jakina denez, gazte hau izazko azaroaren 16ko goizaldean eraman zuen atxilotuta Espainiako Polizia Nazionalak, bere

Iruñeko etxetik, eta inkomunikatuta, galdeketa gogorretan hiru egun eduki ondoren, Garzon epaileak espetxeratzeko agindua eman zuen, egotzi zizkion akusazioak ukatu eta onartu ez arren. Navalcarneron (Espainia) daukate preso.

Jazotakoa «injustizia» dela adierazi eta salatuz batera, «Igor lehenbailehen askatu eta etxean izan dadin» eskatzen dute. Igor Astibiari babesa eta laguntasuna emateko asmoz, herritar talde bat elkartu eta lanean ari dira, modu honetako ekimenak burutzeko.

GIZARTEA ▶

Bainuetxetara joateko eskariak egiteko epea

Hirugarren adinekoentzat da deialdia eta Gizarte Zerbitzuan egin behar dira eskaerak

J. ASTIBIA

Hirugarren adinekoentzat eta orohar, pentsiodunentzat, 10-12 egun bainuetxe batean lasai samar egoteko gogoia izan behin behin, aukera zabalik dago.

Eskualdeko Gizarte Zerbitzutik HITZARI jakinarazi diotenez, Arnedillo, Fitero edo Serongo bainuetxeetara joan nahi izanez gero, leku-eskaera zerbitzu honen egoitzan egin behar da, hil honen azkena, 31, baino lehen. Horretarako, NAN delakoaren kopia eta

pentsioaren ziurtagiria eraman behar dira, eta handik eskatuko diote medikuari bakoitzaren osasun txostena. Aditza eman dutenez, zerbitzura joaterako, aurrez, ordua eskatzea beharrezkoa da.

Bainuetxetako egonaldi hauek Nafarroako Gobernuak laguntzen ditu diruz.

Bestalde, eskaerak onartu edo ez, bainuetxeetatik bertatik erabakitzen omen dute, batez ere eskatzailearen osasun egoera kontutan hartu ondoren.

iragarki laburrak ▶

LANA

Neska. Neska behar da goizez, umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. 667 45 51 76.

15:00etatik 17:00etara.

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da, asteburuetan lan egiteko. 943 691 933.

Sukaldaria-tabernaria.

Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 682 154.

Sukaldaria. Sukaldari bat behar da, asteazkenetik igandera aritzeko, kontratupean. 635 70 05 59. 16:00etatik aurrera.

Emakumea. Emakume bat behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. 696 67 45 33

SALGAI

Etxea. Alegiako Larraituz azoan etxea salgai. 680 57 09 52.

Txakurkumeak. Yorkshire arrazako bakurkumeak saltzen dira. 661 95 59 02.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 21a, ostirala ▶ III. urtea

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

11

BIHARKO

goizez



arratsaldez



ELURRA

ARALARREN

Guardetxe: ez

Albi: ez

Pagomari: ez

Igaratza: ez

HITZA-KO BEZERON

ARRETA ZENBAKIA

(Zalantzak, Itarptide egiteko...)

943

30 43 46

Eusko

Jaurfari-tza,

Kultura Sailea

943

30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Jubilatuen elkarteak Gabon saria jasotzeko eta urteko kuota ordaintzeko epea zabalik da hilaren 25a bitarte.

Alegia. Saharara bidaltzeko janari bilketa gaur amaituko da Aralar institutuan. Hegaluztea oliotan, konpresak eta azukrea dira eskatzen direnak.

Berrobi. Mamen Gorostiagak emango duen *Lore sorta eta koadroak* ikastarorako izen-emate epea gaur amaitzen da udalebean; Kutxan astelehena arte eman daiteke. Otsailetik abendura izango da ikastaroa.

Ibarra. Uzturpe ikastolaren V. Kultur Astea. Bihar, 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00etara haur festa Belabieta kiroldegian. Ondoren, txokolate jatea San Bartolome plazan.

Ibarra. Zikloturista Taldearen urteko bilera, 19:30ean Kultur Etxean.

Ikaztegieta. Marboaren 5 eta 6rako Candanchura eskiatzera joateko iteera antolatatu du Udalak. Helduek 24 euro eta 11 urte artekoek 21 euro ordaindu beharko dute (autobusa, afaria, aterpea eta gosaria). Izen-ematea udalebean.

Irura. Odola emateko aukera, Herri Ikastolan, 19:00etan.

Irura. Peña Enara Euskaltel-Euskadik autobusa antolatatu du hilaren 27an, osteguna, Hondarribiako Hondartza kiroldegian egingo den Euskaltel-Euskadi taldearen aurkezpen ofizialera joateko. Enara tabernan eman daiteke izena. Autobusa 17:45ean aterako da herriko plazatik.

Leitza. Perkusio ikastaroaren bigarren eguna, bihar, 11:00etatik 13:00etara.

Tolosa. Yogari buruzko hitzaldia Iluntzean, Kultur Etxean.

Tolosa. Euskal Mendi Federazioak antolatutako Euskal mendizaletasunaren festa ekitaldia Leidor zinema aretoan, 19:30ean hasita.

Tolosa. Haurteko errolla jendaurrean izango da jarrita udaletxeko beheko solairuan hilaren 28a bitarte.

Erreklamazioari egin nahi izanez gero NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia aurkeztu behar da udaletxeko estatistika departamentuan (3. solairua).

Tolosa. Ero-Etxe elkarteak antolatutako krosa izango da igandean, 1991 eta 1996 artean jaiotako neska-mutilentzat. Izen-ematea ikastetxeetan eta irteera

puntuak egin daiteke.

Tolosa. Karroza eta konpatsen lehiaketarako izen-ematea gaur amaitzen da Aranburu Jauregian. 09:00etatik 13:00era egin daiteke.

Tolosa. Haur Danborradako kosaken entsegua. Bihar, Beotibar pilotalekuan, 15:30ean.

Tolosa. *Xurdirn kobaluzoan galdurik* antzerki musikatua haurrentzat. Bihar, 17:30ean, Leidor zinema antzokian.

Villabona. Itxialdia presoan borrokaldiarekin bat egiteko. Gaur 22:00etan hasi eta bihar 18:00ak arte, Kultur Etxean.

Zizurkil. Jon Tapia preso zizurkildarra itxialdia egiten ari dela-eta manifestazioa izango da bihar *Euskal Herrira orain* lelopean. 18:00etan, plazatik.

INAUTERIAK

Leitza. Inauterien biharamona, bihar: arratsaldez eskea (16:00) eginen dute eta gero bertso afaria sagardotegian (21:30), Luze, Elizasu, Riaño eta Landerrekin. Gauerditik aurrera kontzertua Karrapean, Gazte Asanbladaren eskutik.

KIROLAK

GAUR

Esku pilota
(Gipuzkoako Txapelketa)
▶ Behar-Zana 2-Zubieta 3 (Nagusiak, joko garbiz. 22:00, Amasako Udal Pilotalekuan).

BIHAR

Esku pilota
(Udaberri Txapelketa)
▶ Behar-Zana-Oiangui 3 (Nagusiak, paleta larruz. 16:00, Amasako Udal Pilotalekuan).
▶ Behar-Zana-Lazkao 1 (Nagusiak, eskuz bikana. 16:45, Amasako Udal Pilotalekuan).
(Garziandia Pilota Txapelketa.
10:15ean. Beotibarren)
▶ Elizondo-Irurita/ Etxeberria I.a-Arrieta
▶ Alzugarai-Mitxeko/ Bengoetxea-Ontxalo
▶ Zabala-Jauregi/ Mikelperizena-Zubieta.

Areto futbola

▶ Cabanyal- Hegoalde (Emakumezkoen Ohorezko Maila. 16:30, Malvarosa).
▶ Cafeteria Atenea-Ibarra (1. Maila A. 18:00, Judizmendi).
▶ Laskorain-Beti Arin (1. Maila B. 19:00, Berazubi).

Futbola

▶ Tolosa-Zestoa (Gorengoen Maila. 16:30, Berazubi).
▶ Astigarr. Mundarro-Tolosa B (Lurraldeko 1. Maila. 16:00, Zarkumendegi).
▶ Aurrera-Nafarroako Unibertsitate Publikoa (Lurraldeko 1. Maila. 16:00. Arkixkil)
▶ Intxurre-Sporting Herrera B (Jubenilen 1. Maila. 15:45, Elorri).
▶ Billabona-Ostadar (Jubenilen 1. Maila. 16:00, Arratzain).
▶ Lagun Onak-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. 16:30. Garmendipe).
▶ Danena-Gaztepe (Lurraldeko 2. maila. Igoera fasea. 15:30. Elbarrena).
▶ Eibartarrak-Tolosa (Jubenilen Euskal Liga. Igoera fasea. 20:00. Unbe).

Futbol 7.

▶ B. Ignazio Hondarribia-Lanbroa Dickens (1. maila A. 19:00. Felix Garin 1).

Saskibaloia.

▶ Aralar Kirolak-Alza saskibalo (Senior gizonetako maila. 17:00. Berazubi).

ETZI

Futbola.

▶ Amaroz-Donibane (Lurraldeko 2. Maila. 11:30, Elorri).
▶ Tolosa-Club San Ignacio (Kadeteen Euskal Liga. 16:30, Berazubi).

Futbol 7.

▶ Bar Shanti Kirolak-Ekin fisioterapia zentroa (2. maila A. 11:00. Beasain 1).
▶ Irish Guinness-Ibarrako Gazte Asanblada (1. maila A. 11:00, Beasain 2).

MUSIKA

Anoeta. Neubat eta Izaera taldeen kontzertua Gaztebtxean, 23:00etatik aurrera.
Tolosa. Jan Vermeireren organo kontzertua. Santa Maria parrokiaren 20:00etan.
Tolosa. Madrilgo Boikot eta Euskal Herriko Kalean taldeen kontzertua, Bonberenean, 22:30ean.
Tolosa. Idoia Iraola soprano tolosarrak kontzertua eskainiko du Musika Eskolan 20:15ean.

ZINEMA


Tolosa. *Alejandro Magno.* Gaur eta bihar 22:30ean, Leidorren.

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 227.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. *Ilargiaren sekretua.*
Elkarrizketa. Txolarre irrati.
Beste gaiak. Telealarma, Aiztondoko Junta Berria, film laburren filmaketa...
Argitaratzailea. Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Berria, 47 3 esk. Villabona.
▶ 943 69 64 50.
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 206.a.
Orrialdeak. 28.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Jesus Altuna.
Beste gaiak. Angel Cuervo eta Fabiola Jubin, Troika diskoa, Ibarroko dardo txapelketa, Ana Argote Nepalen, Merkatu Txikia...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa, 6 behe. Tolosa.
▶ 943 65 50 04.
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK

Alegko Sebastian.

Zorionak eta horrelako sasoiarekin segi urte askoan. Zure lagunak.



URTE ASKOAN
Mikaela Zabala Goñi
(Txarama). Gaur 83 urte. Zorionak familiaren partetik.



ANIMO AGURRA
Jon Tapia. Estatus politikoa alde txapean. Zuen borroka, gure eredu. Eutsi goiari!

HITZA,
zorion agurren tartea
HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA
Mesedez, argozkia bi
egun lehenago ekarri.
Mila eskeri!